

Inoizko bost dolar etekintsuenak



Ezkerrean, Ben Cohen eta Jerry Greenfield izozkigileak. Eskuinean, Ben & Jerry's enpresaren dasta anitzetako bat.

VERMONT, LONG ISLAND (AEB), 1966. Ben Cohen eta Jerry Greenfield nerabeek elkar ezagutu zuten eskolan. Hamaika urte geroago, 1977an, lagunak etorkizuna ez zegoen batera garbi: Ben lanean ari zen presazko janari enpresatik bota zuten; Jerryk medikuntza fakultatean sartzeko asmoa zeukan, baina unibertsitateak bigarrenez atzera bota zuen haren eskaera.

Beste zereginik gabe, izozkiak egiteko posta bidezko ikastaroa egin zuten Pennsylvaniako Estatuko Unibertsitatean, garaiko bost dolarren truke. Sorterrian, Vermonten, gasolindegia zahar bat hartu eta izozki denda abiarazi zuten 1978an. Negozioari izena jartzerakoan, bikoteak ez zuen ahalegin berezirik egin: Ben & Jerry's. Berehala, tokiko merkatuan zirrikitua zabaldu zuten. Txokolate, intxaur edo fruta zati handiak zituzten izozki haiek arrakasta zuten.

Izozkiak egiten onak ziren, baina kontuak egiten ez zeukaten esperientziarik. Negozioa zabaldu eta bi hila-

betera, behin-behinean, izozki denda itxi zuten; eta kartel bat ipini zuten atean: "Itxita gaude, dirua irabazten ari garen ala ez egiaztatu bitartean". Zoritxarrez, dirua galtzen ari ziren. Bost dolarreko ikastaroa ez bezala, hasierako inbertsioa -12.000 dolar- garesti ateratzen zitzairen.


Buelta eman nahi bazioten, salmentek gora egin behar zuten. Orduan, Benen Volkswagen furgoneta zaharra hartuta, izozkiak banatzen hasi ziren. Gainera, egun bereziak antolatu zituzten, karitatezko ekintzekin bat egin zuten irudia hobetzeko eta, pixkana-pixkana, enpresa hazten hasi zen.

2000. urtetik Unilever kontsumo ondasunen multinazionalaren parte da Ben & Jerry's. 38 herrialdetan hedatu da, 180.000 langile baino gehiago ditu eta 2006an ia 40.000 milioi euro fakturatu zituzten bost dolarreko ikastaro batekin abiatu zen erraldoiak. ■



Arrastoak

Zoriontsua al da Gioconda?



AMSTERDAMEKO UNIBERTSITATEKO lantalde batek, aurpegiko ezaugarriak eta keinuak antzemateko eta emozioekin lotzeko gai den software berezi baten bidez, Da Vinciren modeloaren gogo aldartea aztertu du. Emaitza: Mona Lisa pozik dago %83an, nahigabetua %9an, ikarati %6an eta

haserre %2an. Ezusteko zantzurik, aldiz, ez diote topatu. Modu horretan, Mona Lisaren irribarreak ezkutatzeko duen enigma erantzun nahi izan diote teknologia berriak erabiliz. Hala ere, beste galdera bat erantzunik gabe geratu da: zertarako balio dute horrelako ikerlanek? ■